



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaleteko Udala

Onetsi baliabide gutxiko Portugaleteko herritarrentzako dirulaguntzen oinarri-arauak.

Portugaleteko Udalbatzak, 2024ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkuran honako arau hauek onetsi ditu:

BALIABIDE GUTXIKO PORTUGALETEKO HERRITARRENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI-ARAUAK

Baliabide gutxi dituzten Portugaleteko herritarrentzako dirulaguntzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (PE) jasota daude, gizarteratzea sustatzen duten laguntza ekonomikoen ildo estrategikoan, eta helburu estrategikoarekin: mendekotasun-egoeran, kalteberatasun-egoeran edo babesgabetasun-arriskuan eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen autonomia, babesa eta inklusioa bultzatzea.

1. artikulua. — Dirulaguntzen xedea eta definizioa

Oinarri hauen xedea da ohiko etxebizitza mantentzeko gastuei (tasak kenduta) eta etxebizitza aseguratzearekin lotutako gastuei aurre egiteko dirulaguntzak arautzea, guztiak ere deialdiaren aurreko ekitaldiari dagozkionak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Ohiko etxebizitza erroldatzearen arabera izango da.

2. artikulua. — Onuradunak

Dirulaguntzok Portugaleten errolaturikoek jaso ahal izango dituzte, baldin eta baliabide ekonomiko gutxi badute eta datozen artikuluetako eskakizunak betetzen badituzte.

3. artikulua. — Onuradunek bete beharreko eskakizunak

- Portugaleteko herritarra izatea, udal erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna izanik, dirulaguntza hauetarako eskabidea aurkezteko unean.
- Eskabidean adierazitako helbidean bizileku efektiboa izatea. Bizileku hori dirulaguntza ordaintzeko ordainagirietan ere agertu behar da, eskabidea aurkezteko orduan.
- Familia batek Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/08 Legean (2023ko martxoaren 29tik aurrerako ondorioekin, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak aurrekoa indargabetzen du) eta hura garatzen duten dekretu eta zirkularretan ezarritako planagatik jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa ez gainditzea, edozein kontzepturengatik familiako diru-sarrerara garbi gisa. Hona hemen xehetasunak:

Bizikidetz-unitateko kide kopurua	Urteko kopurua (€)	
	Orokorra	Pentsioduna
1	20.367,36	23.368,56
2	26.153,28	29.210,64
3 edo gehiago	28.930,80	31.547,52

- Ohiko etxebizitza eta trastelekua albo batera utzita, onuradunak ez du izango edozein motatako eta ageriko balioko beste ondasunik.



Ulertuko da onuradunak ageriko balioko beste ondasunak dituela, familia-unitateko kideen ondasunen batuketak (kapital higikorra) honako zenbatekoak gainditzen ditue-nean:

Bizikidetz-unitateko kide kopuru	Balio kapitala eurotan (€)	
	Orokorra	Pentsioduna
1	40.734,72	46.737,12
2	52.306,56	58.421,28
3 edo gehiago	57.861,60	63.095,04

5. Ezin dira dirulaguntzen onuradunak izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarren batean dauden pertsonak.

6. Ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan Gizarte Segurantzarekiko zo-rrak edo betearazpen-aldiko zerga-zehapenak dituzten pertsonak, salbu eta geroratuta, zatituta edo betearaztea etenda duten zerga-zorrak edo -zehapenak direnean.

4. artikulua. — Dirulaguntzen zenbatekoa

Oinarri hauen arabera emandako udal-laguntzek 250 euroko gehieneko zenbatekoa izango dute, uraren kontsumoari (tasak kenduta) eta etxebizitzaren aseguruarekin lotu-tako gastuei dagozkienak, guztiak deialdiaren aurreko ekitaldiari dagozkionak; laguntzen titularrek edo haien ezkontideek edo izatezko bikoteek ordainduko dituzte.

Nolanahi ere, dirulaguntzak aurrekontu-esleipenera mugatuko dira. Eskatutako zen-batekoek aurtengo aurrekontua gainditzen badute, honako neurri hauek hartuko dira:

- Lehenengo eta behin, eskatzaile bakoitzari eman beharreko zenbatekoa gutxitzea; gutxitze hori gehienez diruz laguntzen diren gastu guztien %30ekoa izango da.
- Bigarrenik, eta aurrekontuaren erabilgarritasuna gainditzen jarraituz gero, lehenta-suna emango zaie, lehenik, guraso bakarreko etxekoan unitateen buru diren ema-kumeei. Hau da, legez banandutako edo ezkontza-loturarik gabeko amak, adinga-beko seme-alabek eta judizialki ezgaitutako adinez nagusiek osatutako etxekoan unitateak, soil-soilik harekin bizi badira eta ekonomikoki haren mende badaude.
- Azkenik, aurrekontu-erabilgarritasuna gainditzen jarraituz gero, ezarritako irizpi-deak aplikatzeagatik diru-sarrera gutxien dituzten familia-unitateei emango zaie lehentasuna.

5. artikulua. — Emakidaren prozedura

Dirulaguntza zuzenean ematen da, oinarri-arau hauetan ezarritako baldintzak be-tetzen direla egiaztatu ondoren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.c) artikuluan eta lege horren 28. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 67. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiak daudelako.

6. artikulua. — Eskabideen aurkezpena eta epeak

Eskabideak Portugaleteko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira as-telehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan (San Roke plaza, astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era). Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere aur-keztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri-arau hauen deialdian ezarriko da, deialdia Biz-kaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.



Informazioa eta eskabide-orria arestian aipatutako udal bulegoetan egongo dira. Halaber, Udal webgunean (www.portugalete.org).

7. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskatzaileak honako agiriak aurkeztuko ditu:
 - a) I. Eranskina, hauexek dituena:
 - Dirulaguntzarako eskabide-orria
 - Banketxearen datuak
 - Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izatea eragozten duten ingurubarretako batean ere ez dagoela adierazten duen aitortpena.
 - b) Eskatzailearen eta, behar izanez gero, bizikidetza-unitateko kide guztien NANen fotokopiak edo familia-liburuaren fotokopia.
 - c) Azken ekitaldi fiskaleko Ondasun Ziurtagiria eta Errenta, Bizkaiko Foru Aldundiak egina, hala eskatzailearena nola 18 urtetik gorako bizikidetza-unitatearen kideena.
 - d) Ohiko etxebizitzako ur-kontsumoen jatorrizko ordainagiriak, deialdiaren aurreko ekitaldikoak.
 - e) Ohiko etxebizitza aseguratzearekin zerikusia duten gastuen fakturak eta ordainagiriak, deialdiaren aurreko ekitaldikoak.
 - f) II. Eranskina. Banketxearen ziurtagiria, Udalak aldeztu aurretik ez badu.

Halaber, Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailak espedienteak izapidetzeko behar duen beste edozein agiri eskatu ahal izango diote eskatzaileari. Eskatutako agiriak aurkezteari uko egiteak, gezurrezko datuak azaltzeak, daturen bat isiltzeak eta dirulaguntza lortzeko edozein iruzurrek berez ekarriko dute dirulaguntza ezestea, hortik etor daitezkeen beste lege-erantzukizun batzuk alde batera utzi gabe.

8. artikulua. — Organo eskuduna eta ebazpena

Deialdian izendatzen den organo instruktoreak aztertuko ditu eskabideak, eta hari egokituko zaio ofizioz beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak egitea, ebazpen-proposamena egiteko erabiliko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko, eta onuradunek dirulaguntza eskuratzeko baldintzak betetzeari buruzko txostena egitea.

Ebaluazioa egiteko eta dagokion txostena egiteko, balorazio-batzorde bat eratuko da, eta honako hauek osatuko dute:

- Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Zuzendaritza, lehendakaritza.
- Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Zuzendaritza, Lehendakaritzaren ordezkari gisa.
- Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Saileko administrari bat, idazkaritza gisa.
- Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Saileko gizarte-langile bat, kide gisa.

Txosten hori instrukzio-organoari helaraziko zaio, dagokion ebazpen-proposamena egin dezan.

Prozedura ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, salbu eta ebazpen horrek ondorioak geroagoko data batera atzeratzen baditu.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio-prozedurari buruzko legerian aurreikusitako moduan eta epean jakinaraziko dira.

Ebazteko gehieneko epea behin igarota, berariazko ebazpenik tartean egon ezik, dirulaguntzaren emakida ezetsitzat joko da.

9. artikulua. — Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira hala edozein Administrazio Publikok nola erakunde publiko edo pribatuk eman ditzaketenekin, baldin eta helburu bera badute. Dirulaguntzok jasoz gero, Portugaleteko Udalarari jakinarazi beharko zaio.

**10. artikulua.— *Araubide juridiko aplikagarria***

Laguntza horiek honako arau hauen arabera arautuko dira: oinarri arautzaile hauen arabera; Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera; Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen arabera; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduen arabera.

11. artikulua.— *Aurrekontuko zuzkidura*

Dirulaguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.

12. artikulua.— *Dirulaguntzen emakidaren publizitatea*

Portugaleteko udalerriko herritarrentzako dirulaguntzen ebazpenen publizitatea egingo da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluen arabera.

13. artikulua.— *Xedapen gehigarria*

Arautegi hau Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean (BDNS) argitaratzeaz gain, Udalaren iragarki-taulan Portugaleteko Udalaren Gardentasun Atarian egongo da ikusgai.

Portugaleten, 2024ko maiatzaren 30ean.— Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

